

ABERRI EGUNA 2014

Euskal Herrian erabaki! Zazpiak bat!

2014ko apirilaren 8.

-Aurtengo Aberri Eguna oso une eta testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial berezi eta esanguratsuan ospatuko dugu. Herrien erabakitzeko eskubidearen eztabaida zabalik dago Europan eta Euskal Herrian, eta oztopo guztien gainetik Eskozian eta Catalunyan prozesu propioak martxan daude.

-Europan, XXI mendean, demokrazian, herriek eta nazioek bere etorkizuna eraikitze muga bakarrak herritarren borondateak adierazten dituen behar dira, behintzat izan beharko lirateke. Estaturik gabeko nazioen aitortza, herriek duten erabakitzeko eskubidea, oinarrizko printzipioak dira demokrazian. Egun, Eskoziak, Catalunyak eta beste hainbat herri egiten duten bezala, Euskal Herriak ere gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea adierazi behar dugu, Europan eta munduan.

-Urte zailak bizi izan ditugu gure herrian gatazka luze eta gogor baten testuinguruan. Orain horren ondorio politiko eta sozialak gainditzeko eta bideratzeko bidean gaude. Bide horretan Euskal Herriak benetako soru demokratikoa behar du prozesua sakontzeko eta bermatzeko eta gure etorkizuna, gizartearen iritzi eta borondatearen arabera antolatzeko eta eraikitzeko.

-Zoritxarrez, estatuak euskal gizartearen sortu den esperantza higitzera jotzen ari dira; baina ez hori bakarrik. Madril eta Parisetik ez dute haintzat hartzen gure herriaren aldarrikapenak, erabakitzeko eskubidearen eztabaidari bizkarra ematen diote. Orain, Europan eta munduan eztabaida mahai gainean dagoela, zentralismo eta jakobinismo azterakoien atzaparretan harrapatuta utzi nahi gaituzte.

-Alde batetik, frantziar jakobinismoak oztopatu nahi du Ipar Euskal Herrian Lurralde Elkargoa errealitate bat bihurtzea, nahiz eta babes politiko eta soziala zabala izan. Eraberean, atzerakada demokratiko nabarmenean murgilduta dagoen espainiar estatuak, Espainia handia eta bakarraren diskurtso zaharrean lurperatu nahi du lurraldetasunaren eztabaida, Nafarroa Garaian aldaketa politikoa ekidituz eta EAEn estatusaren eztabaida estatutuaren erreforma huts batera bideratuz

-Baina lurraldetasunaren eztabaidaren beharra eta premia ezin dute ezkutatu, eta testuinguru horretan gure herriak bakea eta demokrazia behar dituela ozenki esatera gatoz, Euskal Herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidean oinarritutako prozesu bat aldarrikatuz, eremu bakoitzaren berezitasunak errespetatuz. Ezin da etorkizuna eraiki eredu zaharkituen gainean eta gizartearen gehiengoaren kontra.

-Askapen soziala eta nazionalaren bidetik igaro nahi dugu aurretik dugun bidea... ezker soberanista gara, ezker eraldatzailea gara, eta ikuspuntu horretatik jardun nahi dugu munduan, herri gisa. Askapen nazionalaren borroka askapen sozialaren borrokaren esku joan behar baitu.

-Gure herriaren etorkizuna eraikitze irizpide demokratikoetan oinarritutako eztabaida eta prozesua bultzatu behar da, giartearen eragile politiko, sindikal eta sozialen elkarlana sustatuz eta elkarrizketa politiko zabala bermatuz Nafarroa Garaian, Ipar Euskal Herrian eta EAEn, beti ere herritarren borondatea kontuan hartuta. Eta prozesu horren abiapuntuan erabakitzeko eskubidea eta herriaren aitortza kokatu behar dira, oinarrizko printzipio demokratikoak baitira.

-Arduraz jokatzeko eta akordio zabalak lortzeko eta bideratzeko unea da. Gure bidean sakontzeko, urratsak emateko, gure erabakiak hartzeko garaia da. Askatasunean eta demokrazian oinarritutako

etorkizuna eraikitzeke ordua da.

-Mugarik gabeko demokrazia behar dugu, garai berri hauetan gizartearen benetako protagonismo eta gidaritza bermatzeko, potere errealarekin, gure herriaren eskubideak babesten duen gehiengo demokratikoak osatuz, muga ideologikoen gainetik.

-Euskal Herritarren borondate politikoaren adierazpena berritzeko unea da, EH subjeto politiko bezala eta nazio gisa aitortuz eta beraz, nazio gisa dagozkion erabakitzeke eskubidea onartuz.

- Guzti honengatik, hemen gaudenok, nazio aliantzan bilduta gauden AB, Alternatiba, Aralar, EA eta Sortu alderdiek, deialdia egiten dugu aurtengo Aberri Eguna Larresoron eta Iruñean ospatzeko Euskal Herria estatua izatekoduene eskubidea aldarrikatuz.